



## FAMILIARENTZAKO TXOSTENA INFORME PARA LA FAMILIA

**RESULTADOS DE LA EVALUACIÓN DE DIAGNÓSTICO 2017  
2017KO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK**

**Lehen Hezkuntzako 4. maila / 4<sup>º</sup> Educación Primaria**

**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Familia agurgarria:

2016-2017 ikasturtean bosgarren ebaluazio diagnostikoa garatu genuen, 2008-2009 ikasturtetik eginez etorri garen ebaluazioa. Ebaluazio horren helburua oinarrizko kompetentzia batzuk neurtzea da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleen garapen integralerako gakotzat hartzen ditugunak, hain zuzen ere.

Zuen semeak edo alabak 2017ko ebaluazio diagnostikoan parte hartu zuen, eta txosten honetan aurkezten dizkizuegu ebaluatutako oinarrizko lau kompetentzietako bakoitzean lortutako emaitzak:

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.**
- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.**
- **Matematikarako kompetentzia.**
- **Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia.**
- **Ingeleseko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.**

Garrantzitsua da ulertzea ebaluazio honen helburua ez dela memorizazio hutseko ikuspegi batetik ikasleen ezagutza akademiko soilak neurtzea. Bere esperientzia pertsonal eta hezkuntza arloko esperientziatik gertu dauden arazoak konpontzeko hezkuntza-prozesuan eskuratutako ezagutzak modu eraginkorrean erabiltzeko zer gaitasun duen ebaluatzea da oinarrizko helburua. Hau da, esate baterako, ez dira neurtzen bere ezagutza gramatikalak, hainbat motatako eta zailtasun ugariatako idatzizko eta ahozko hainbat testu ulertzeko gai den, baizik eta, euskaraz, gaztelaniaz nahiz ingelesez testu koherenteak eta zuzenak idazteko duen gaitasuna. Era berean, hainbat motatako, baina batez ere, eguneroko bizitzako problemak ebazteko bere matematika- eta zientzia-ezagutzak aplikatzeko gaitasuna ere baloratu da.

Kanpo-ebaluazio hau kalitatea eta fidagarritasuna bermatzeko kontrol guztiekin egin den arren, inolaz ere ez du ordezkutzen ikastetxeko irakasleek egindakoa, eta, noski, ez du ondorio akademikorik. Bai familiarako, bai ikastetxeetarako informazio- eta orientazio-izaera du, ez besterik.

Ikusi ahal izango duzuen moduan, kompetentzia horietako bakoitzean hiru garapen maila ezarri dira: **Hasierakoa, Erdiko mailakoa eta Aurreratua**. Txosten honetan topatuko duzuen grafikoan ikusi ahal izango duzue zer mailatan dagoen zuen semea edo alaba kompetentzia horietako bakoitzean. Era berean, txosten honetako 5. orrialdetik aurrera, ebaluatutako bost kompetentzia horietan adierazitako mailetako bakoitzaren deskribapen laburra dator. Deskribapen hori lagungarri izango zaizue proba bakoitzean zuen semea edo alaba zer egiteko gai izan den interpretatzeko.

**Etengabeko hobekuntzara bideratuta daude gure hezkuntza-sistemaren esfortzu guztiak, baina hezkuntza guztion zeregina da, eta zalantzarik gabe, familiek funtzio garrantzitsua dute prozesu horretan.** Emaitza horiek kontuan hartuta, ikastetxeak eman diezazukeen informazioarekin batera, zuen semea edo alaba ikaskuntzaren etengabeko hobekuntzan anima dezazuen eta lagun diezazozuen eskatzen dizuet. Ziur naiz zuen laguntzarekin eta ikastetxeak eskain dezakeen lankidetzarekin, euskal hezkuntza hobetzea lortuko dugula guztion artean.

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua

Estimada familia:

Durante el pasado curso 2016-2017, desarrollamos la quinta evaluación de diagnóstico que venimos realizando desde el curso 2008-2009. Esta evaluación mide algunas competencias básicas, que consideramos claves para el desarrollo integral del alumnado de 4º de Educación Primaria y 2º de Educación Secundaria Obligatoria.

Su hijo o hija participó en la evaluación de diagnóstico 2017 y en este informe le presentamos los resultados que ha obtenido en cada una de las cinco competencias básicas evaluadas:

- **Competencia en comunicación lingüística en euskara.**
- **Competencia en comunicación lingüística en castellano.**
- **Competencia matemática.**
- **Competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud.**
- **Competencia en comunicación lingüística en inglés.**

Es importante comprender que esta evaluación no pretende medir sólo sus conocimientos académicos, desde un enfoque meramente memorístico. El objetivo fundamental es evaluar hasta qué punto es capaz de **utilizar de manera eficaz los conocimientos adquiridos en su proceso educativo para resolver problemas** cercanos a su experiencia personal y educativa. Es decir, no se miden, por ejemplo, sus conocimientos gramaticales, sino si es capaz de entender textos orales y escritos de diferente tipo y dificultad y su competencia para escribir textos coherentes y correctos tanto en euskara, como en castellano e inglés. Así mismo, se ha valorado su capacidad para aplicar sus conocimientos matemáticos y científicos para resolver problemas de distinto tipo, pero, sobre todo, de la vida cotidiana.

Aunque esta evaluación externa se ha realizado con todos los controles para garantizar su calidad y fiabilidad, no sustituye, en ningún caso, a la realizada por el profesorado del centro ni tiene, por supuesto, efectos académicos. Tiene, exclusivamente, un carácter informativo y orientador tanto para las familias como para los centros educativos.

Como podrán observar, en cada una de estas competencias se han fijado tres niveles de desarrollo: **Inicial, Medio y Avanzado**. En el gráfico que encontrarán en este informe podrán ver en qué nivel se encuentra su hijo o hija en cada una de estas competencias. Así mismo, a partir de la página 5 de este informe, aparece una breve descripción de cada uno de los niveles señalados en las cinco competencias evaluadas. Esta descripción les ayudará más fácilmente a interpretar qué ha sido capaz de hacer su hijo o hija en cada prueba.

**La mejora permanente es el objetivo al que se encaminan todos los esfuerzos de nuestro sistema educativo, pero la educación es cosa de todos y, sin duda, las familias tienen una función clave en este proceso.** Les invito a que, teniendo en cuenta estos resultados, junto con la información que el centro les pueda transmitir, ayuden y animen a su hijo o hija en la mejora permanentemente de su aprendizaje. Estoy segura de que con su ayuda y con la colaboración que puedan ofrecer al centro conseguiremos entre todos mejorar la educación vasca.

Cristina Uriarte Toledo

Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura

## Zer dakiten egiten kompetentzia mailetako bakoitzean

MAILAK	Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia: Euskaraz	Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia: Gaztelaniaz
<b>HASIERAKO MAILA</b>	<p>Maila honetako ikasleak komunikazio-kompetentzia mugatua du eta nolabaiteko zailtasunak ditu euskarazko testuak ulertzeko. Ahozko zein idatzizko testu hurbiletan (ipuinak, albiste laburrak eta foiletoak) datuak identifikatzeko gai da. Halaber, testu hurbil eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzeko gai da.</p>	<p>Maila honetan dagoen ikasleak nolabaiteko zailtasunak izaten ditu ahozko zein idatzizko testuak (informazio testuak, egunkariak, ipuinak, berriak...) ulertzeko. Testu sinple eta hurbiletan ideia nagusia antzemateko eta informazioak identifikatzeko gai da.</p>
<b>ERDI-MAILA</b>	<p>Erdi-mailan dagoen ikasleak komunikazio-kompetentzia egokia du. Hasierako mailan deskribatutakoaz gain, gai da ideiak erlazionatzeko irakurri edo entzun dituen testu ezberdinetan eta bere ikasmilari dagokion ohiko hiztegia antzematen du.</p>	<p>Hasierako mailan deskribatutakoaz gain, maila honetan dagoen ikasleak ahozko zein idatzizko testuak –ez beti eremu ezagunekoak– egoki ulertzen ditu. Ideia nagusiak antzemateko gai da irakurri edo entzun dituen testu ezberdinetan. Testu ezberdinetako egitura antzematen du eta agertutako ideiak erlazionatzeko gai da.</p>
<b>MAILA AURRERATUA</b>	<p>Maila honetan dagoen ikasleak hizkuntza- eta komunikazio-kompetentzia handia du. Hasierako eta erdi-mailan deskribatutakoaz gain, ikaslea gai da entzumen eta irakurmenaren lanak egiteko zailtasun handiagoko testuak erabiliz, eta ez beti bere esperientzia pertsonalari lotutakoak. Testuen xedea identifikatzen du, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak desberdintzen ditu eta testuaren edukia bere ideien arabera interpretatzen du.</p>	<p>Hasierako eta erdi-mailan deskribatutakoaz gain, maila honetan dagoen ikasleak ahozko zein idatzizko testuak aise ulertzen ditu. Era ezberdinetako ahozko zein idatzizko testuetako informazioa identifikatzeko, erlazionatzeko eta interpretatzeko gai da. Halaber, informazioa eta ezagupen pertsonala erlazionatzeko gai da.</p>

## Zer dakiten egiten kompetentzia mailetako bakoitzean

MAILAK	Matematikarako kompetentzia	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia
<p><b>HASIERAKO MAILA</b></p>	<p>Maila honetako ikasleak zenbakien oinarriko ezagupenak erabiltzen ditu, eta eragiketa bateko problema oso sinpleak ebazten ditu, batuketa, kenketa edo biderketa erabiliz. Luzera neurrien estimazioak egiten ditu eta espazioan kokagune ezberdinak antzematen ditu. Tauletako eta grafiko oso sinpleetako datuak erlazionatzeko gai da.</p>	<p>Maila honetako ikaslea zientzia-, teknologia- eta osasun-munduko oinarriko alderdiak adibide sinpleen bidez ezagutzen hasia da. Zenbait fenomenoren kausarik nabarmena aurki dezake. Informazio sinpleak sailkatzen eta konparatzen ditu, eta argibideak jarraituz grafikoak eta eskemak osatzen ditu. Problema bat ebazteko eman behar diren urratsak laguntzarekin ordenatzen ditu. Bere ingurune ohiko gailu eta tresna batzuk ezagutzen ditu. Elikadura osasungarriaren, gorputzaren higienaren eta zaintzaren ohitura batzuk identifikatzen ditu. Ohiko giza jarduerak bere ingurunearen kalitatean dituzten ondorio nabarmenenak antzematen ditu, eta gai da kalitate hori defendatzeko egin daitekeen ekintzaren bat identifikatzeko.</p>
<p><b>ERDI-MAILA</b></p>	<p>Maila honetako ikasleak batuketa, kenketa edo/eta biderketa eskatzen duten problemak aise ebazten ditu. lgarkizunak eta logika eta eragiketa-arrazoiketako problema sinpleak ebazten ditu, eta baita unitate ezberdinak (dirua, pisua, luzera, edukiera, denbora) erabiltzea eskatzen duten problemak ere. Matematika gaien arteko loturak egiten ditu, eta horri esker nolabaiteko konplexutasuna duten problemak ebatz ditzake.</p>	<p>Maila honetako ikasleak, hasierako mailan deskribatutako trebetasunez gain, ingurune naturaleko elementurik garrantzitsuenak identifikatzen ditu, zientzia-kontzeptu sinpleen arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak antzematen ditu, eta objektuak eta materialak sailkatzen ditu. Informazio iturriak era autonomoan erabiltzen ditu, eta informazioa grafiko eta eskema sinpleetan adierazten du. Esperientzia bat gauzatzeko, tresna bat erabiltzeko edo makina bat funtzionatzeko eman behar diren urratsak argi deskribatzen ditu. Gertaera baten kausa eta ondorioak nabarmenenak azaltzen ditu, eta zientzia-ezagupenekin erlazionatzen ditu. Ohiko gailuak erabiltzeko oinarriko segurtasun neurriak antzematen ditu. Dieta orekatuak eta ohitura osasungarriak identifikatzen ditu. Bere ingurune hurbileko ingurumen-arazoak aztertzen ditu, eta irtenbideak proposatzen ditu.</p>
<p><b>MAILA AURRERATUA</b></p>	<p>Maila honetako ikasleak arrazoiketa landuak erabiltzen ditu problema originalak ebazteko eta oinarriko lau eragiketetako batzuk (zatiketa barne) egitea edo magnitude bateko unitateak bihurtzea eskatzen duten matematika egoera konplexuak ebazteko. Problema egoerak segurtasunez ebazten ditu, eta egindako kalkuluak eta emaitza matematikoki adierazten ditu.</p>	<p>Maila honetako ikasleak, hasierako eta erdi-mailan deskribatutako trebetasunez gain, ingurune naturaleko elementurik garrantzitsuenak deskribatzen ditu, eta haien arteko erlazioak finkatzen ditu. Objektuak, materialak eta aldaketak sailkatzen eta ordenatzen ditu beren ezaugarrietan oinarrituta. Bere azalpenetan kausa ezberdinak identifikatzen ditu, eta ondorio arrazoituak ateratzen ditu. Iturri ezberdinetako informazio garrantzitsua ordenatzen, sailkatzen eta konparatzen du. Elikadura dietak, gorputzaren higienaren eta zaintzaren inguruko ohiturak aztertzen ditu, eta osasunean duten eraginarekin eta gaixotasunen prebentzioarekin erlazionatzen ditu. Bere ingurune ohiko gailuak eta teknologia-baliabideak aztertzeko gai da. Bere ingurune hurbileko ingurumen-arazoetarako irtenbideak proposatzen ditu.</p>

MAILAK	Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia: Ingelesez	
HASIERAKO MAILA		Maila honetan dagoen ikasleak hizkuntza-gaitasun apala edo hasi berria du; komunikatzeko hitz solteak erabiltzen ditu, eta kosta egiten zaio bere ideiak adieraztea. Entzumenean eta irakurmenean, testu simple ezagunetan gaia eta informazio zehatzen bat identifikatzeko gai da. Idazmenean, arazoak izaten ditu bere ideiak adierazteko, eta gehienetan hitz solteak erabiltzen ditu, eredu kopiatzen du, edo beste hizkuntza bateko hitzak erabiltzen ditu. Gramatikari, ortografiari eta hiztegiari buruzko ezagupena apala da bere ikasmalarako.
ERDI-MAILA		Maila honetan dagoen ikasleak hizkuntza-gaitasun egokia du; hizkuntza-baliabideak eta komunikaziorako estrategiak modu autonomoan erabiltzen ditu. Entzumenean eta irakurmenean, gai da ideia nagusia antzemateko, informazio zehatza eta garrantzitsua aurkitzeko eta edukia bere ezagupen propioetan oinarriturik interpretatzeko. Idazmenean itxurazko maila du; gai da eredu baten laguntzaz idazlan ulergarri bat egiteko. Gramatikari, ortografiari eta hiztegiari buruzko ezagupena egokia da bere ikasmalarako.
MAILA AURRERATUA		Maila honetan dagoen ikasleak hizkuntza-gaitasun ona du; askotariko hizkuntza-elementuak erraztasunez erabiltzen ditu eta komunikatzeko estrategia egokiak modu autonomoan erabiltzen ditu. Entzumenean eta irakurmenean, gai da ideia nagusia antzemateko, informazio zehatza eta garrantzitsua aurkitzeko, emandako informazioa interpretatzeko eta bereezagupen propioekin integratzeko, eta dedukzioak eta aurreikuspenak egiteko. Idazmenean, ikasmila kontuan izanik espero litekeena baino maila altuagoa du; eredu batean oinarriturik, aise ulertzen den idazlana egiteko gai da, bere ideia propioak gehituz. Gramatika, ortografia, hiztegia eta hizkuntza-baliabideak ongi menperatzen ditu.

## Qué saben hacer en cada uno de los niveles de competencia

NIVELES	Competencia en comunicación lingüística: Euskara	Competencia en comunicación lingüística: Castellano
NIVEL INICIAL	El alumnado que se sitúa en el nivel inicial tiene una competencia comunicativa limitada y se maneja con cierta dificultad para comprender textos en euskara. Es capaz de identificar datos en textos orales y escritos cercanos como cuentos, noticias breves y folletos. Asimismo, este alumnado identifica el sentido global y las ideas principales en textos sencillos y claros.	El alumnado que se sitúa en este nivel inicial se maneja con cierta dificultad para comprender textos orales y escritos (textos informativos, diarios, cuentos, noticias...). Es capaz de reconocer la idea global y de identificar informaciones de textos sencillos y cercanos.
NIVEL MEDIO	El alumnado que se sitúa en el nivel medio tiene una competencia comunicativa adecuada. Además de lo descrito en el nivel inicial, es capaz de relacionar las distintas ideas de los textos que ha escuchado o leído y reconoce el vocabulario habitual en su nivel escolar.	Además de lo descrito en el nivel inicial, el alumnado que se sitúa en este nivel medio discrimina la información relevante de un texto y es capaz de reconocer las ideas principales de distintos textos que ha leído o escuchado. Reconoce la estructura de diferentes tipos de textos y relaciona las ideas que aparecen en los mismos.
NIVEL AVANZADO	El alumnado de este nivel tiene una competencia lingüística y comunicativa alta. Además de lo descrito en los niveles anteriores, este alumnado resuelve tareas de comprensión oral y escrita en textos de mayor complejidad y no siempre cercanos a su experiencia personal. Reconoce la finalidad de los textos, diferencia ideas principales y secundarias e interpreta el contenido en relación con sus ideas propias.	Además de lo descrito en el nivel inicial y medio, el alumnado que se sitúa en este nivel avanzado resuelve de forma eficaz las tareas de comprensión (oral y escrita) en textos de mayor dificultad. Sabe identificar, relacionar e interpretar información de diferentes tipos de textos orales y escritos. Es capaz de relacionar información y conocimiento personal.



## Qué saben hacer en cada uno de los niveles de competencia

NIVELES	Competencia matemática	Competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud
NIVEL INICIAL	<p>El alumnado de este nivel utiliza los conocimientos numéricos elementales y resuelve problemas muy sencillos de una operación, aplicando la suma, resta o multiplicación. Realiza estimaciones de medidas de longitud y reconoce diferentes posiciones en el espacio. Es capaz de asociar los datos de tablas y gráficas muy sencillas.</p>	<p>Se sitúa en este nivel el alumnado que está empezando a conocer aspectos elementales del mundo científico, tecnológico y de la salud, a través de ejemplos sencillos. Puede detectar la causa más evidente de algunos fenómenos. Clasifica y compara informaciones sencillas, y completa gráficas y esquemas siguiendo indicaciones. Ordena con ayuda los pasos que debe seguir para resolver un problema. Conoce algunos aparatos y herramientas habituales en su entorno. Identifica algunas costumbres de alimentación sana, higiene y cuidado del cuerpo. También detecta algunas repercusiones evidentes de las actividades humanas cotidianas en la calidad de su entorno y es capaz de identificar alguna acción concreta para su defensa.</p>
NIVEL MEDIO	<p>El alumnado de este nivel resuelve con fluidez problemas en los que hay que utilizar operaciones de suma, resta y/o multiplicación. Soluciona acertijos y problemas sencillos de razonamiento lógico y operacional y problemas en los que emplea diferentes unidades (dinero, peso, longitud, capacidad, tiempo). Establece conexiones entre diversos temas matemáticos, lo que le facilita resolver problemas de cierta complejidad.</p>	<p>Se sitúa en este nivel el alumnado que, además de las destrezas descritas en el nivel inicial, identifica los principales elementos del entorno natural, reconoce diferencias y similitudes entre conceptos científicos sencillos y clasifica objetos y materiales. Utiliza fuentes de información con autonomía y la representa en gráficas y esquemas sencillos. Describe con claridad los pasos llevados a cabo al realizar una experiencia, utilizar una herramienta o hacer funcionar una máquina. Explica la causa y efectos más evidentes de un hecho, y lo relaciona con conocimientos científicos. Reconoce normas de seguridad básica en el uso de aparatos habituales. Identifica dietas equilibradas y hábitos saludables. Analiza problemas del medio ambiente de su entorno cercano y propone soluciones.</p>
NIVEL AVANZADO	<p>El alumnado de este nivel emplea razonamientos elaborados para resolver problemas originales y situaciones matemáticas complejas que implican la realización de varias de las cuatro operaciones básicas (incluida la división) o la conversión de unidades de una magnitud. Resuelve con seguridad las situaciones problema y expresa matemáticamente los cálculos realizados y la solución.</p>	<p>Se sitúa en este nivel el alumnado que, además de las destrezas descritas en los niveles inicial y medio, describe y establece relaciones entre los principales elementos del entorno natural. Clasifica y ordena objetos, materia y cambios a partir de sus características. En sus explicaciones identifica diversas causas y elabora conclusiones razonadas. Ordena, clasifica y compara información relevante de diversas fuentes. Analiza dietas alimenticias y hábitos adecuados de higiene y cuidado corporal y los relaciona con su repercusión en la salud y con la prevención de enfermedades. También es capaz de examinar los aparatos y recursos tecnológicos de su entorno. Aporta soluciones a los problemas del medio ambiente más próximo.</p>

NIVELES	Competencia en comunicación lingüística: Inglés	
NIVEL INICIAL		El alumnado que se sitúa en este nivel tiene una competencia lingüística incipiente; utiliza palabras sueltas para comunicarse y le cuesta hacerse comprender. En comprensión oral y escrita es capaz de identificar el tema y alguna información específica, en textos sencillos y familiares. En expresión escrita, tiene dificultades para expresarse y normalmente lo hace con palabras sueltas, copiando del modelo o utilizando otras lenguas. Su conocimiento gramatical, ortográfico y léxico es pobre para su nivel educativo.
NIVEL MEDIO		El alumnado que se sitúa en este nivel tiene una competencia lingüística adecuada; utiliza elementos lingüísticos y estrategias para comunicarse de manera autónoma. En comprensión oral y escrita es capaz de reconocer la idea principal, de localizar información específica y relevante y de interpretar su contenido partiendo de conocimientos propios. En expresión escrita, su nivel es aceptable; es capaz de escribir un texto comprensible con la ayuda de un modelo previo. Su conocimiento gramatical, ortográfico y léxico es adecuado a su nivel educativo.
NIVEL AVANZADO		El alumnado que se sitúa en este nivel tiene una competencia lingüística buena; utiliza diversos elementos lingüísticos con soltura y estrategias efectivas para comunicarse de manera autónoma. En comprensión oral y escrita es capaz de reconocer la idea principal, de localizar información específica y relevante, de interpretar e integrar la información recibida con sus conocimientos propios y de hacer deducciones y anticipaciones. En expresión escrita, su nivel es superior al esperado en su nivel educativo; es capaz de escribir un texto fácilmente comprensible a partir del modelo dado y aportando ideas propias. Muestra un buen dominio de los recursos lingüísticos, así como de la gramática, ortografía y léxico.